


## ERANSKINAK

### I. Eranskina. Ikastolako Organigrama Funtzionala



**II. Eranskina.** Dokumentuen analisiak/ Erregistro fitxak

<b>DOKUMENTUEN ANALISIA: Urretxindorra Ikastolako Hezkuntza Proiektua (2001)</b>			
	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>OHARRAK</b>
Ikastolako identitate ikurretan gurasoen garrantzia islatzen da, hori oinarri gisa izanik.	X		-Ikastolak aukera demokratikoaren alde egingo du eta horretarako, guraso, irakasle, zerbitzuetako langile eta ikasleek haren kudeaketan parte hartu eta funtzionamenduan laguntzea sustatuko du. -Ikastolak kritika espiritua, eztabaida eta erabakien gaitasuna eta jarrera parte hartzailea garatuko dituen ildo metodologikoari jarraituko dio.
Ikastolako antolakuntza organoetan gurasoen inplikazioa bermatzen da.	X		Ikasle, irakasle, guraso eta zerbitzuetako langileek Ikastolaren kudeaketan berezko dituzten organoen bitartez parte hartzen dute.
Ikastolako helburu nagusietako bat sektore guztien arteko harremana indartzea da.	X		Ikastola honen helburu nagusia parte hartzea arlo guztietan sustatzea izango da, batez ere, ikasleei dagokionez, haiengan parte hartzeko ohitura pizteko.
Gurasoen parte hartzea non eta nola ematen den zehazten da.		X	

<b>DOKUMENTUEN ANALISIA: Haur Hezkuntzako Marko Pedagogikoa (2008)</b>			
	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>OHARRAK</b>
Zentroko baloreetan Haur Hezkuntza etapa parte hartzaile gisa definitzen da.	X		Ikastola demokratikoa, parte hartzailea eta kontsentsuzalea da. Sormena, lankidetzaz, jarrera kritikoa eta esfortzu pertsonalaren sustatzailea.
Dokumentu honen kudeaketan gurasoen parte hartzea azpimarratzen da.	X		Kide guztien inplikazioa sustatzen du, barruko organoetan parte hartzea eta kanpoko erakundeekin elkarlana bermatuz.
Haur Hezkuntzako helburuetan gurasoen garrantzia aipatzen da.	X		-Hezkuntza familia-irakasleen artean konpartitu behar da. -Ikaskuntza-prozesuan denok bide beretik eta mezu bateratuak emanaz umeari dagokion heziketa denon artean konpartitzen ahalegindu behar gara. -Gurasoen eta irakasleen arteko komunikazioa eta lotura sendoa ezinbestekoa da. -Guraso-irakaslearen arteko koherentziari eutsi behar diogu.
Etorkizunari begira inplikazioa hobetzeko nahia daukate.	X		-Ikusmira: Erreferente bat izan nahi du Bilbon honako esparru honetan: ikastolako interes talde guztien parte hartzean eta asebetetzean.

### **III. Eranskina.** Zuzendari Pedagogikoari egindako elkarrizketa

#### **1.-Ikastola gurasoen kooperatiba bat izateak zer esan nahi du?**

Ikastola gurasoena dela esan nahi du; beraz, hasieratik gurasoen inplikazioa esparru guztietan egon behar da. Kooperatiba bat izateagatik, gurasoek ikastolarekiko eginbehar batzuk dituzte: urtean aste bat jantokian eta beste aste bat garbiketa esparruan egotea alegia.

#### **2.-Nola parte hartzen dute familiek ikastolan? (AMPA, Eskola Kontseilua, Guraso eskola...).**

Bi eginbehar horietaz aparte, zentroa banatuta dagoen estamentu guztietan kide guztien inplikazioa sustatzen da. Asanblada, ikastolako organorik gorena da; erabakitze punturik gorena haiek daukate. Bertan, ikastolako guraso kooperatibista guztiek parte hartzen dute eta ikastolako erabaki guztiak hartzen dituzte. Esate baterako, ikastola handitzearena eta hirugarren lerro bat irekitzearena haiek erabaki zuten.

Gero Asanbladatik hamar guraso ordezkari ateratzen dira, Errektore Batzordea osatzeko. Hauek, egunerokotasuneko erabakiak adosten dituzte; batez ere funtzionamenduaren ingurukoak eta egin nahi diren inbertsioen ingurukoak. Batzorde honetan, gurasoez gain, Zuzendari Pedagogikoa, pedagogia arloaz arduratzen dena, ekonomia arloaz arduratzen dena eta gerentea ere daude.

Maila baxuago batean, Gestio Batzordean, erabaki pedagogikoak ere hartzen dira. Bertan, juntako sei guraso, normalean gelako ordezkarietatik ateratzen direnak, sei irakasle, bi ikasle eta zerbitzuetako ordezkari bat daude. Azkenik, gela bakoitzak guraso ordezkari bat dauka. Honen eginbeharra gelako arazoak kudeatzea da.

Estamentu hauetan daukaten parte hartzeaz gain, etapa bakoitzeko Guraso Eskolak ere eskaintzen zaizkie; urte osoan zehar jarduten dutenak. Kurtso hasieran gurasoei inkesta bat pasatzen zaie, landu ahal diren gai batzuekin, asteko egunekin eta ordutegi batzuekin. Horrela, gehiengoak esaten duenaren arabera era batean edo bestean antolatzen dira guraso eskolak. Hauek agintzari taldearekin aurrera eramaten dira; udaletxeak antolatzen dituen Guraso Eskolekin hain zuzen ere.

Agintzari taldeko psikologoek edota pedagogoek ematen dituzte eskola hauek; urtean zehar 5-6 gai landuz. Lehenengo gaiak prestatu, ostean inkesten emaitzen arabera datak jarri eta gurasoak informatu egiten dira eta azkenik, astebete lehenago marketing, propaganda egiten da; haien interesa bereganatzeko.

Eskola hauetaz aparte, zentro guztietan egiten diren bileretan ere esku hartu dezakete gurasoek. Maila guztietan, kurtso hasieran, bilera orokor bat egiten da gelako familia guztiekin; non ikasturte horren inguruko informazioa ematen den. Honetaz aparte, gurasoekin bilera indibidualak ere ematen dira. Esate baterako, Haur Hezkuntzan, irakasleek hiruhilabetean behin gurasoekin biltzeko beharra daukate.

Urtean zehar, sortzen diren ekintza puntualetan jarduteko aukera ere ematen zaie. Esate baterako, aurten bai ikasle baita gurasoek ere, sukaldaritza tailer batean parte hartu izan dute; Basque Culinary Center-etik etorritako irakasleekin. Momentuko beharren arabera, gurasoei formakuntza saioak ere eskaintzen zaizkie. Adibidez, orain dela bi urte ikastola irekia aplikazioa sortu izan zen, ikastolako partaide guztien komunikazioa hobetzeko nahiarekin. Hau horrela izanda, honen erabilera errazteko, gurasoei plataforma honen inguruko azalpen batzuk ematea garrantzitsua zela ikusi genuen.

Amaitzeko, ikastolan gurasoez osatutako Jai Batzordea eta Euskara Batzordea daude; non gurasoek eta ikastolako langileek batera lan egiten duten.

### **3.-Zenbatekoa da parte hartze hori? Eta Haur Hezkuntzan?**

Azken urteetan ikastolara gero eta guraso gutxiago datozela nabaritu dugu; batez ere Guraso Eskoletako inplikazioari dagokionez. Horregatik, hasiera batean guk, ikastolako langileak, ateratzen genituen gaiak eta ostean gurasoek aukeratzera igaro ginen. Horrela, erabaki hori haien interesen eta gustuen arabera egin ahal zuten.

Ikasleak gero eta nagusiagoak izanda, haien gurasoen parte hartzea gero eta txikiagoa dela ere ikusi dugu; interes gutxiago dutelako. Ondorioz, batxilergoko Guraso Eskola kendu izan genuen. DBH-n ere antzeko egoera ematen ari zen, horregatik gai erakargarriagoak eta egunerokotasunarekin lotura dutenak jartzen ahalegintzen gara. Adibidez, “Instagram, twitter eta beste ezezagun batzuk”, “Litroak eta petak”...

Haur hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ordea, inplikazioa handiagoa dela nabaritzen da; haiek eskatzen dute parte hartze hori, horren beharra ikusten dutelako.

**4.-Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan ere esku hartzen dute? Nola?**

Ez, ez diegu gurasoei ia horrelako aukerarik ematen momentuz. Horretan pentsatzen gaude, gurasoen beharra ezinbestekoa ikusten dugulako; ikasleen inguruan irakasleak ez ezik gurasoak ere daudelako. Orain arte ikastola gune pribatu bat izan da, non irakasleak soilik sartzen ziren eta gurasoek ez zuten horren beharra ikusten. Baina gaur egun aldaketa horretan gaude, horregatik zenbait ekintzetan guraso eta ikasleen arteko elkarlana bermatzen ahalegintzen gara.

**5.-Gurasoek interesa adierazten dute parte hartze horretan? Horrela ez bada zerbait egiten duzue inplikazio hori sustatzeko?**

Gurasoek interes handia erakusten dute ikastolan parte hartzeko, batez ere Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzakoak. Hala ere, ikastolatik guraso guztien inplikazioa bermatzeko interesgarriak izan daitezkeen gaiak edota ekintzak proposatzen saiatzen gara. Horregatik, Guraso Eskoletan esaterako, landuko diren gaien inguruko kartelak edota panfletoak egiten ditugu; guraso gehien erakartzeko asmoarekin.

**6.-Familiek eta irakasleek egiten dituzten ekarpenei garrantzi bera ematen zaie?**

Bai, ikastola gurasoen kooperatiba bat denez, gurasoen esanak izugarritzko garrantzia dauka.

**7.-Inplikazio hori nahikoa dela uste duzue? Edota hobetu daiteke?**

Beti hobetu daiteke gurasoen inplikazioa. Momentuan horretan gaude, parte hartze hori handitzeko nahia daukagu, garrantzitsua ikusten dugulako. Gainera, gurasoen aldetik ere eskaera eta esku hartzeko grina dagoela ikusten dugu.

**8.-Etorkizunari begira hobetzeko ideiarik daukazue? Horrela izatekotan nola?**

Ikastola berriarekin eta zabaldu nahi dugun hirugarren lerroarekin gurasoen praktika handiagoa izatea lortu nahi dugu. Horretarako, beste eskola batzuetan aurrera eramaten dituzten programa eta ekintzetan oinarritzen ari gara; horiek eredu izateko.

Esate baterako, Haur Hezkuntzari dagokionez, harrera momentua luzeagoa egiten pentsatzen ari gara. Era horretan, gurasoak gelan sartu ahalko zirelako eta ikasleekin

denbora gehiago egon ahalko zirelako. Hezkidetza talde bat sortzea ere pentsatu dugu, non gurasoek, ikasleek eta langileek, denak batera parte hartu ahalko zuten...

Azken batean, konturatu gara zenbait ekintzetarako, gurasoak ez ezik, ikastola barneko langileak eta ikasle nagusienak ere prest egongo zirela laguntzeko. Beraz, hau kontuan izatea ezinbestekoa egiten zaigu, denok batera lan eginez askoz gauza gehiago lortu ditzakegulako.

### **9.-Zelako harremana daukazu gurasoekin?**

Ikastolako orientatzailea naiz, horregatik DBH eta Batxilergoko ikasle eta gurasoekin harremana daukat. Honetaz aparte, Errektore Batzordeko Zuzendari Pedagogikoa naiz eta bertan zenbait gurasoekin hilabeteetan bitan biltzen naiz.

**Iturria:** Booth, T. eta Ainscow, M. (2000). Galderak egokitua.

#### **IV. Eranskina. Irakasleari egindako elkarrizketa**

##### **1.-Zure ikasgelan gurasoek parte hartzen dute? Nola?**

Bai, gehien bat bileren bitartez. Hau da, bilera orokorrak egiten direnean gurasoak etortzen dira eta bakarkako bileretan ere. Umeekin lan egitea eskatzen zaienean ere elkartrukaketak egoten dira, informazio trukeak alegia. Hauek normalean umeen bitartez eta egoera eta momentu puntualetan izaten dira.

##### **2.-Gustatuko litzazuke gurasoek parte hartze handiagoa izatea? Edo nahikoa daukate?**

Dagoen parte hartzearekin nahikoa dela uste dut. Hala ere, egia da umeekin esku hartze handiagoa izan beharko zutela, labur gelditzen delako. Hau agian gure aldetik informazio nahikoa ematen ez diegulako gertatzen da. Hots, gurasoei aldeztu aurretik gaien inguruko informazioa bidalita, agian umeekin landu ahalko zituzten. Egiten duguna zera da, beharrezkoa dugunean informazio hori eskatzen dugu edota gaia amaitzen denean etxera eramaten dute gurasoei erakusteko. Baina aldeztu aurretik ez diegunez informazio hori eskaintzen, ez daukate aukerarik etxean gai hori ere lantzeko. Agian hori eginda, harremana handiagotu ahalko zen.

##### **3.-Parte hartze handiagoa nahi izatekotan zein esparruetan edo nola?**

---

##### **4.-Zure ustez garrantzitsua da gurasoek haien seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzea? Zergatik?**

Nire ustez umeen motibazioa gurasoengandik etorri beharko litzateke. Bakoitzak jakin behar du bere seme-alabaren interesak zeintzuk diren eta zelako gustuak dituen; hortik irakurketa-idazketa prozesua abiatzeko, matematika esparrua... Adibidez zure seme-ari dragoiak gustatzen bazaizkio, horren inguruko ipuinak hartuta horren inguruan hitz egin dezakezu berarekin, esparru desberdinak landuz. Azkenean ikastolan ume guztien interesak kontuan hartzea ezinezkoa denez, egiten den ikaskuntza oso orokorra da; baina gurasoek etxean era zuzenago batean egin dezakete. Izan ere, hizkuntzaren bitartez logika, irakurketa-idazketa, matematika... lantzen da.



### **5.-Irakasle gisa zerbait egin dezakezuela uste duzu?**

Bai, aldez aurretik gurasoei landuko denaren inguruko informazioa ematea esaterako. Hasiera batean unitate didaktikoekin hasi baino lehen informazio orokor bat bidaltzea planteatu genuen, zelako gaiak landuko genituen eta zer lortu nahi genuen gurasoek jakin zezaten. Horrela, nahi izatekotan, ikasleek gurasoekin aspektu horiek aurrera eramanez ahalko zituzten, gaiak ere aurreikusiz. Hau izan zen hasiera batean pentsatuta geneukana, baina ez dugu egin. Nik uste dut hori eginda gurasoen aldetik inplikazio handiagoa lortuko genukeela, baina momentuz ez dugu aurrera eramanez.

### **6.-Gurasoak ondo informatuta daudela uste duzu?**

Ondo informatuta daude informazio orokor batean, baina gero informazio puntualagoetan ez. Adibidez, hemendik hiru astetara zer landuko dugun aldez aurretik ez dakite. Guk umeekin gelan lan egiten dugu, eta fitxa-liburua amaitzen dutenean gurasoei eramaten diete informazio hori; umeez egiten dute, guk ez diegu beraiei ematen. Dena dela, orokorrean informazioa ematen zaiela uste dut, bai talde handiko bileretan baita bakoitzari, umeari dagokiona ere (zelan landu, zer egin...).

**Iturria:** Booth, T. eta Ainscow, M. (2000). Galderak egokitua.

V. Eranskina. Gurasoei pasatutako inkestak

1.-Ikastolan parte hartzen duzue?  BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan esan ahal didazue zertan?

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

2.-Gustatuko litzaizueke zure seme- alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izatea ikastolan (irakasle eta ikasleekin)?  BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan nola parte hartuko zenukete?

\* GURASO - IRAKASLE TAN TALDEAK

\* EKINTEA BEREZIK FAMILIAK - IKASTOLAN

\* ETXETIK, GELAN ESITEN ETA LANTEAN DUTEN

INFORMAZIOA LEHENAGO IZAN ETA LANAN

3.-Zuen parte hartzea nahikoa dela uste duzue?  BAI  EZ\*

\*Erantzuna ezezkoa izatekotan arrazoitu erantzuna.

MOTIBU HONETAN BARRERDETAN ETA

TALDEETAN SAREKO ETA PARTE HARTZEKO

AUKERAK TURRITUTA DUTUGU, GURE

EGOKIA PARTSONALA DA ETA.

4.-Zuen inplikazioa zuen seme- alaben hezkuntzan eragina duela uste duzue?

BAI\*  EZ\*

\*Arrazoitu zure erantzuna.

BEHARREZKOA DA FAMILIAREN LAGUNDA ETA INPLIKAZIOA,

ZORBAT ETA GELAN HIRI. UTEAN MOTIBAZIOAN DUTEN

DEA USTE DUTU ETA HOBETO BARRERATUKO DITE IKASTOLAN

EGINDAKOA. ELKARLANA DA SAKTA.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Ane Villegas

Inkesta hau guztiz anonimoa da eta datuak soilik gradu amaierako lana egiteko erabiliko dira. Horregatik, zintzotasunez erantzutea eskertuko nizueke.

1.-Ikastolan parte hartzen duzue?  BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan esan ahal didazue zertan?

Eskolako gurasoen batzordean parte hartzen.

2.-Gustatuko litzaizueke zure seme- alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izatea?  BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan nola parte hartuko zenukete?

Bai eta ez. Parte hartzea ona da baina irakaslearen lanean sartu barik.

3.-Zuen parte hartzea nahikoa dela uste duzue?  BAI  EZ\*

\*Erantzuna ezezkoa izatekotan arrazoitu erantzuna.

Normalki gurasoak gutxi-tan hartzen dugu parte edo batzutan sartzen gara guri tokatzen ez zaizkijon gaureratan.

4.-Zuen implikazioa zuen seme- alaben hezkuntzan eragina duela uste duzue?

BAI\*  EZ\*

\*Arrazoitu zure erantzuna.

Pentsatzen dut komunikazio ondo dagoela. Irakasleekin bai gurasoak baina irakasleekin uurremanetan ezon behar ko gaurerako.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Ane Villegas



1.-Ikastolan parte hartzen duzue?

BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan esan ahal didazue zertan?

- ZERBITZU KOPERATIBOA EGITEN  
 - GURASOEN EUSKARA BATZORDEAN  
 - ERREKTORRE BATZORDEAN

2.-Gustatuko litzaizueke zure seme- alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izatea ikastolan (irakasle eta ikasleekin)?

BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan nola parte hartuko zenukete?

GURE SEME -ALABEN HEZKUNTZA PROZESUAN EUREKIN ETA IRAKASLEAREKIN ELKARLANEN ARITU BEHAR GARA, MOTIBAZIOA, JARRERA ETA ABARREAN ERAGIN POSITIBOA IOPINZ. HOPRETARAKO KOMUNIKAZIOA EMAN BEHAR DA AUDE GURTEN ARAN.

3.-Zuen parte hartzea nahikoa dela uste duzue?

BAI  EZ\*

\*Erantzuna ezezkoa izatekotan arrazoitu erantzuna.

EGUNEROKOTASUNEAN, IRAKASKUNTZA - IKASKUNTZA PROZESUAN EMATEN DIREN GORA BEHERAK ERAGITU ETA, INTERESGUTIAK, ZAILDASUNAK ETA ABARRAK IDENTIFIKATZEKO ETXEA - IKASTOLA / IKAS TOIA - ETXEA INFORMAZIOA ARINGOIA BEHAR DUKE

4.-Zuen inplikazioa zuen seme- alaben hezkuntzan eragina duela uste duzue?

BAI\*  EZ\*

\*Arrazoitu zure erantzuna.

EZINBESTEKOA DA; BALOREAK TRANSMITITZEKO AFETIBITOREA EMATEKO ADARAK ETA NINGAI EZARTZEKO, AUTONOMIA LANTZEKO... EZ DUGU HEZKUNTZA-PROZESUA IRUDIKATZEN IKASTOLA ETA FAMILIAREN ARTEKO ELKARLAN BARIK Eskerrik asko zuen laguntzagarik.

1.-¿Participáis en la ikastola?  Sí\*  NO

\*Si la respuesta es sí, ¿me podéis decir en qué?

---



---



---



---

2.-¿Os gustaria participar de una manera directa en el proceso educativo de vuestro@s hij@os en la ikastola (con profesores y alumnos)?  Sí\*  NO

\*Si la respuesta es sí, ¿se os ocurre cómo podríais participar?

Nos gustaría conocer un poco más de los temas que se tratan en clase para poder darles continuidad en casa. Para ello, podríamos hacer reuniones oitas / irakales por trimestres.

(Ej: no sé hasta q. número o qué letra es copat de escribir mi hoja, me gustaría saber usar para trabajar en casa.

3.-¿Creéis que vuestra participación es suficiente?  Sí  NO\*

\*Si la respuesta es no, razona tu respuesta.

Nos gustaría dar una mayor continuidad a la vida de la ikastola en casa, que no sean solo compartimentos diferenciados, integrar la vida de la ikastola en la vida familiar.

4.-¿Creéis que vuestra implicación afecta en el proceso educativo de vuestro@s hij@os?  Sí\*  NO\*

\*Razona tu respuesta.

Partimos de la base de que el proceso educativo debe estar fundado en la educación que se da en casa, pero quizás debieramos implicarnos más en saber y trabajar los conceptos que se tratan en clase.

Gracias por vuestra ayuda.

Mila esker Ane, que ometsuan hestkuntan parte hartzeagatik!

Ane Villegas



1.-¿Participáis en la ikastola?  Sí\*  NO

\*Si la respuesta es sí, ¿me podéis decir en qué?

Intento participar en la medida que puedo ya que mi cuñada no es muy buena y no dispongo de una persona que me cuide al niño.  
En fiestas: limpieza - chocolatada...

2.-¿Os gustaría participar de una manera directa en el proceso educativo de vuestro@s hij@os en la ikastola (con profesores y alumnos)?  Sí\*  NO

\*Si la respuesta es sí, ¿se os ocurre cómo podríais participar?

-Dinamicos mensuales, juegos, compartir experiencias con otras familias para ayudarse.

3.-¿Creéis que vuestra participación es suficiente?  Sí  NO\*

\*Si la respuesta es no, razona tu respuesta.

- Lo que he comentado cuñada-idioma y cuidado del niño.  
- A mi me gusta que haya servicio de guardería

4.-¿Creéis que vuestra implicación afecta en el proceso educativo de vuestro@s hij@os?  Sí\*  NO\*

\*Razona tu respuesta.

- Estando más integrado te enteras de más cosas y puedes ayudar a tu hijo  
- Para mí es importantísimo

Gracias por vuestra ayuda.

Ane Villegas

Inkesta hau guztiz anonimoa da eta datuak soilik gradu amaierako lana egiteko erabiliko dira. Horregatik, zintzotasunez erantzutea eskertuko nizueke.

1.-Ikastolan parte hartzen duzue?

BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan esan ahal didazue zertan?

Gelako ordezkaria izaten, Ikastolako jaietan parte hartzen, antolatutako guraren eskolan parte hartzen, Ikastolak Miribillako jaietan antolatzen duen txogran txandak egiten, Bertso afaietan elatzen...

2.-Gustatuko litzaizueke zure seme- alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izatea?

BAI\*  EZ

\*Erantzuna baiezkoa izatekotan nola parte hartuko zenukete?

Gustatuko litzaizuke nire semearen hezkuntza prozesuari buruz informazio jasotzea Irakasleen lanetan sartu barik.

3.-Zuen parte hartzea nahikoa dela uste duzue?

BAI  EZ\*

\*Erantzuna ezezkoa izatekotan arrazoitu erantzuna.

Beti es da posible eskatzen den laguntza ematea.

4.-Zuen inplikazioa zuen seme- alaben hezkuntzan eragina duela uste duzue?

BAI\*  EZ\*

\*Arrazoitu zure erantzuna.

Nire ustez inportantea da nire semearentzat ikuskea Ikastolan parte hartzen duela eta interesatuta duedala.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Ane Villegas